

Larramendi Ikastolak, datorren ikasturtetik aurrera **idazkari laguntzailearen lanpostua bete behar du.**

✚ **Ezaugarriak:** Lan kontratu finkoa %45 bateko lan jornadaekin, lan kategoria administrari laguntzailea, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ikastoletako Lan Hitzarmenaren arabera. Orduategia: ohiko orduategia 09:00-12:00 eta matrikulazio garai ezberdinetan 09:00-14:00 orduategia.

✚ **Eskakizunak:** Unibertsitate/Lanbide Heziketa ikasketak eta Euskaran gutxienez C1.

✚ **Funtzio nagusiak:**

- **Bulego harrera:** Telefono zein email bidezko komunikazio orokorraz arduratu, Ikastolako sarreran dauden ikasleak zein gurasoak jaso, beharrezkoa den telefono harrera egiten du
- **Ikasle istripu prozedura eta Ikasleen osasun egoeraren kudeaketa:** Gaixo dauden haurrak zaindu, gurasoei deitu, aseguruako medikuari deitu, parteak egin, Osakidetzako ikasleen txertaketa gauzatzeko lanak burutu, koordinazioa erizainekin, zerrenden prestaketa, gurasoen baimena, irakasleekin koordinazioa, ikasleen osasun fitxak kudeatu: altak, bajak, medikazio iraunkorrak, eguneko medikazioak, jantokiarekin koordinatu, alexia artxiboak eguneratu, Idazkaritzako botikina/farmazia egunean mantendu
- **Matrikulazioa:** Ikasle berriak dagokion aplikatiboan sartu eta ikasle horien egoeraren deskribapena izan, ikasle berrien fitxa egin, ate irekien egunerako materiala zein dokumentazioa prestatu, ate irekien zein matrikulaziotarako espresuki sorturiko aplikatiboa/web-prozedura bete eta jarraitu, matrikulazio prozesuko zerrendatuak atera, matrikulazioa begira guraso kezkek bideratu, matrikulazio estatistika egin, matrikulazioarekin loturiko dokumentazio guztia prestatu
- **Hezkuntza aplikatiboa konprobatu eta erabilpen egokiaz arduratu:** DAE egin, Ikasleen ikasgai aktak inprimatu eta tutoreak probisonala itxi ostean, ixtea egin, Aktak eta akta artxiboa zaindu.
- **Tituluen eskaera:** DBH4 zein Batxilergo 2ko tituluen eskaria egin, Tituluen banaketa familiei bideratu.
- **Bekak: ikas materiala, jantokia, garraioa, atzerrikoak:** Hezkuntza bekak bideratu, Ekipo-informatiko bekak bideratu, Eusko Jaurlaritzako bekak formalizatzen gurasoak laguntzen ditu

✚ **Prozedura:** Hautagaiek CV eta bertan aipatzen diren baremaziorako agiriak aurkeztu beharko dituzue [Ikastolako web orrialdearen](#) bitartez. Epea: 2026ko ekainaren 12tik ekainaren 19ra arte (biak barne). Lan elkarrizketak: ekainaren 22-25 bitartean. Lanean hasi, irailaren 1ean.